

BALOREZKO PROPOSAMENA



**Garazi Etxarte
Harriet Urdampileta
Oier Arraztio
Garazi Aizpurua**

Ogarri taldea osatzen dugu duk, Garazi Aizpuruak, Oier Arraztiok, Garazi Etxartek eta Harriet Urdampilletak. Ingurumena zaintzeko eta kutsadura murrizteko enpresa bat sortzea dugu helburu, bertan horretarako zeregin desberdinak eginez. Gure enpresaren berezitasuna zera da: edukiontziak jarriko ditugu herri guztietan herri bakoitzeko udaletxearen baimenarekin, edukiontzi marroiak zehazki material organikoak birziklatzeko balio dutelako, eta herri bakoitzean toki desberdinetan zehar jarriko ditugu, horrela jendeak bertara botatzen dituen hondakinak aprobetxatuta, arropa, liburuak, estutxeak... egingo ditugu. Baita ere zuhaitzak landatuko ditugu, belardiak zainduko ditugu... parke naturalak osatuz. Enpresa honekin mundu mailan hobeto bizitzea lortuko genuke.

Gure proposamenean parte hartuko baluke jendeak, hobeto bizitzea lortuko genuke, gaixotasunak murriztuko litzakete, izan ere, kutsadura txikiagoa izango zen. Gainera, gizabanakoak gure proiektuarekin identifikatzeko aukera izango du eta kasu horretan, gure produktuak erosiz, helburu nagusia lortzeko lagundu, hau da, denok elkarrekin planeta suntsitzeari uztea eta natura egoera on batean mantentzea. Eta honetarako honako balioak izango litzuzke:

Nobedadea, gure inguruan enpresa bakarra izango delako horrelako proiektua duena esku artean eta gainera, natura babesteaz aparte, bezeroei produktu ezberdinak eskainiko zaizkie, adibidez arropa, zapatilak, estutxeak, ikasketetara bideratutako produktuak edo dena delakoa. Beraz, originaltasun horretaz aparte, gure bezeroei aukera bat baino gehiago eskainiko diegu gure enpresan inbertitu dezaten.

Horrez gain, **prestazio** bikainak eskainiko ditu gure enpresak. Gurekin kontaktatzeko aukera izango dute, bai gure lan guneean fisikoki edo online ere, gure webguneari esker. Gure bezeroei mota askotako produktuak eskainiko dizkiegu eta material birziklatuarekin eginak izango diren arren, kalitatezkoak izango dira, izan ere, metodo profesionalak erabiliko ditugu material hori era egokian erabiltzeko eta gure produktuak saldu ahal izateko.

Arriskua murriztea gure helburutako bat da, eta hau ingurumena zaintzen et kutsadura murrizten dugun heinean lortuko dugu, adibidez gaixotasunak gutxituz eta mundu mailan hobeto bizitzea lortuz.

Balio kuantitatiboari dagokionez, gure produktuak ekoizpen jardueraren araberako prezioa izango dute, hondakin gehiago jasoz gero erraztasun handiagoak izango ditugulako

produktu horiek sortu edo ekoizteko. Hau da, geroz eta hondakin gehiago erabiliz prezioa baxuagoa izango da errentagarritasun handitzen delako. Aldiz, hondakin gutxiago jasotzen baditugu produktuak garestiagoak izango dira inbertitutakoa errentagarria izan dadin.

Erabilerraztasunari dagokinez, jendearentzat erraza izan dadin gure proiektuan parte hartzea, herri bakoitzean leku desberdinetan jarriko ditugu edukiontzia, horrela errazagoa izango da zauden lekutik asko mugitu gabe gure proiektuan parte hartzea.